

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL**DONOSTIAKO UDALA**

Araututako aparkamenduaren ordenantza aldaketaren behin betiko onespena.

Donostiako Udalbatzak, 2015eko martxoaren 26an egindako osoko bilkuran, ondorengoaren berri jaso du:

«Udalbatzari.

Udalbatzak, 2014ko abenduaren 18ko bilkuran, araututako aparkamenduaren ordenantza aldatzeari hasierako onespena ematea erabaki zuen.

Hasierako onespen horren iragarkia iragarki oholean eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen 2015eko urtarrilaren 7an, eta, hala, jendaurrean jartzeko eta entzuteko aldia hasi zen, 30 lanegunerako.

Jendaurreko epea bukatuta, ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu. Ondorioz, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan ezarrita dagoenez, ordu arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onartutzat jo behar da eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN aldaketaren testua publikatuko da.

Horiek horrela, Udalbatzari jakinarazten zaio, Donostiako Udalbatzaren Organo Araudiko 113. artikuluan xedatutakoa jarraituz, aipatutako udal ordenantza aldatzea erabaki zuen akordioa behin betiko bihurtu dela.

Ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsioa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Esandako epea argitalpen honen hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Bestetik, Legea 7/1985, apirilaren 2ko Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzeko 70.2 artikuluan agintzen duena betez, behin-betiko onartutako akordioa eta araua argitara ematera goaz.

Donostia, 2015eko martxoaren 30a.—Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Udalbatzaren idazkari nagusia. (3159)

6. artikulua aldatzea, Arautze orokorraren gainekoa.

1. 1-1, 1-2, 1-4 eta 1-5 aparkaleku sektoreak.

* 1-2 sektorea: urte guztian arautzen da, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era, eta 15:30etik 20:00etara Larunbatetan, 9:00etatik 13:30era, eta 16:30etik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan arautu gabe izaten da aparkatzea.

2. 4-1, 4-2, 4-3, 4-4, 4-5 eta 4-7 aparkaleku sektoreak:

* 4-3, 4-4, 4-5 eta 4-7 sektoreak: urte guztian arautzen dira, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era, eta 15:30etik 20:00etara Larunbat, igande eta jaiegunetan, arautu gabe izaten da aparkatzea.

I.go eranskina aldatzea:

I. eranskinean deskribatutako 1-2 eta 1-3 sektoreek batu eta, aurrerantzean, 1-2 sektorea izango dira.

AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

Aprobación definitiva de la modificación de la ordenanza de estacionamiento regulado.

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 26 de marzo de 2015, quedó enterada de lo siguiente:

«Al Excelentísimo Ayuntamiento Pleno.

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 18 de diciembre de 2014, aprobó inicialmente la modificación de la Ordenanza de Estacionamiento Regulado.

El 7 de enero de 2015 se insertó en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y en el tablón de edictos anuncio de la citada aprobación inicial, abriéndose el plazo de exposición pública por plazo de treinta días hábiles.

Dentro de dicho plazo no consta que se haya presentado sugerencia ni reclamación alguna, por lo que, de conformidad con lo dispuesto en último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local, puede entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial y procede, por tanto, la publicación del texto íntegro de la modificación el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Por lo expuesto, de conformidad con el artículo 113 del Reglamento Orgánico de Pleno, se da cuenta al Excmo. Ayuntamiento Pleno de la aprobación definitiva de la modificación de dicha Ordenanza.

Este acuerdo pone fin a la vía administrativa y podrá ser impugnado directamente ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses.

Este plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio.

De conformidad con lo dispuesto en el art. 70.2 de la citada Ley 7/1985, a continuación se procede a la publicación del acuerdo y de la norma aprobada.

San Sebastián, a 30 de marzo de 2015.—El secretario general del Pleno, Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga. (3159)

Modificación del art. 6. Regulación General.

1. Sectores de Aparcamiento 1-1, 1-2, 1-4 y 1-5.

* Sector 1-2: Se regulan todo el año de lunes a viernes de 9:00 a 13:30 y de 15:30 a 20:00 horas. Sábados de 9:00 a 13:30 y de 16:30 a 21:00 horas. Domingos y festivos no se regula el aparcamiento.

2. Sectores de Aparcamiento 4-1, 4-2, 4-3, 4-4, 4-5 y 4-7:

* Sectores 4-3, 4-4, 4-5 y 4-7: Se regulan todo el año, de lunes a viernes de 9:00 a 13:30 y de 15:30 a 20:00 horas. Sábados, domingos y festivos no se regula el aparcamiento.

Modificación del Anexo I:

Los sectores 1-2 y 1-3 descritos en el Anexo I se unificarán pasando a ser el Sector 1-2.

I. eranskinean deskribatutako 4-4 eta 4-6 sektoreek batu eta, aurrerantzean, 4-4 sektorea izango dira.

– 4-1 sektorea.

Portuene kalea.

Zatia: Palacio-Portuene 49.

– 2-3 sektorea.

Telleria kalea.

Zatia: Konkorrenea-Karmengo Andre Mariaren kalea, 15.

II.go eranskina aldatzea:

II. eranskinean deskribatutako 1-2 eta 1-3 sektoreek batu eta, aurrerantzean, 1-2 sektorea izango dira.

II. eranskinean deskribatutako 4-4 eta 4-6 sektoreek batu eta, aurrerantzean, 4-4 sektorea izango dira.

– 2-3 sektorea.

Telleria kalea.

Guztiak.

Los sectores 4-4 y 4-6 descritos en el Anexo I se unificarán pasando a ser el Sector 4-4.

– Sector 4-1.

Calle Portuene.

Tramo: Palacio-Portuene 49.

– Sector 2-3

Calle Tejería

Tramo: konkorrenea-Virgen del Carmen n.º 15.

Modificación del Anexo II:

Los sectores 1-2 y 1-3 descritos en el Anexo II se unificarán pasando a ser el Sector 1-2.

Los sectores 4-4 y 4-6 descritos en el Anexo II se unificarán pasando a ser el Sector 4-4.

– Sector 2-3.

Calle Tejería.

Todos.